

ZENBAT BURU

Gemma  
Agirregomezkorta

ERREPORTAIA

24 ordu  
Udaltzaingoarekin

# BARREN

1997ko otsailaren 7a  
V. urtea - 182. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

KALE INKESTA

Gustatzen al zaizkizu  
ihauteriak?

BERBETAN

Ramon Uriguen,  
Santa Agedako  
koruen  
antolatzailea

GEHIGARRIA

Kalezulotik  
BASERRIRA

KIROL

ELKARRIZKETA  
Angel Pedron

KULTURA

Santa Ageda  
eta San Blas

GAZTAROA

Kazetaritza ikasketak



# ihautetiak!

“Pertsona aspergarriak dira aspertzen diren

# foto ostarku

Ihauterietako zure argazkiak  
ORDU 1ean errebelatuak



C/Santa Ana N°5  
tel-fax 740646  
Elgoibar

Ihauterietako estudio  
argazkiak  
**PREZIO BEREZIETAN**

# EIBAR

OSASUNDEGIA

*Urkizu pasealekua, 11.  
(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).  
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04  
EIBAR*

- |                            |                          |
|----------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia             | 9- Barne medizina        |
| 2- Kardiologia             | 10- Ortodontzia          |
| 3- Zirugia                 | 11- Otorrinolaringologia |
| 4- Dermatologia            | 12- Pediatria            |
| 5- Dietetika eta Nutrizioa | 13- Psikiatria           |
| 6- Foniatria               | 14- Radiologia           |
| 7- Ginekologia             | 15- Traumatologia        |
| 8- Laborategia             | 16- Urologia             |



GEMMA  
AGIRREGOMEZKORTA

## Neguko iluntasunetik

**N**eguk dakarren hotz eta iluntasunarekin nahiko triste sentitzen naiz. Sentipen horretan nire osasuna ahultzen eta ezintasuna gehitzen doakidala ikusteak badu zerikusirik.

Nire mugak direla medio, gutxitan ateratzen naiz kalera baina ateratzen naizentan, nabarmen somatzen dut alaitasun gehiegirik gabe bizi garela.

Beste pertsona asko bezalaxe, ni ere gauza pilo batek kezkatzen naute: GEURE HIZKUNTZAK, GAIXOEK, GAZTEEK, HIRUGARREN ADINEKOEK, PRESOEN DISPERTSIOAK, LANGABEZIAK, PAKAREN BIDEAK, ARRAZAKERIAK eta abar luze batek, baina benetan lur jota uzten nauena hauxe da: Elgoibarren gertatzen ari diren HERIOTZ GAZTEAK, HIESa edota edozein ISTRIPU MOTA dela bide, hau da, ZENTZURIK GABEKOAK!

Gai guztiak garrantzitsuak diren arren, gaurko honetan arrazakeria hurbiletik bizi izan nueneko une bat datorkit burura. Estatu Batuetara egin nuen bidaiaren batean, gidari beltz bat izan genuen bertako bazterrak ederki asko erakutsi zizkiguna eta horra non bere azala zela eta ez zela gure bidaiakide batzuen mespretxuak jasan behar izan zituen. Lotsagarria benetan kontuan izanik irain horiek giza maila sozial altuko

pertsonengandik zetozela ikusita. Besteak beste, hor ditugu emakume eta azal desberdinekoei buruz Quintana katedratikoak egindako azalpenak eta okerrena zera da, ehuneko kopuru handi bat bere adierazpen horiekin bat datorrela. Harrigarria eta kezagarria benetan.

Hau guztiaren aurrean, zer egin?

Duela urte dextente, Xabier Letek, bere emaztea lagun, olerki zoragarri baten bidez honela kantatzen zuen: "HANDITZEN ZARENEAN IKUSIKO DUZU IXILIK EGOTEAK ZENBAT BALIO DUN".

Olerkia oso ederra bada ere, kasu hauetan ez du ezer balio ixilik egoteak, izan ere, zenbaitetan gauzak salatzea beharrezkoa baita. Zer ari da gertatzen gure gizartean? Ba al gaude gi-

zarte honen akatsak aldatzeko prest?

Badakit arazo handien aurrean ezer gutxi egin dezakegula baina, hala ere, esperantzarako mezu bat zabaldu nahi nuke. Gure arteko harremanak hobetzen ahalegintzen bagara, pauso handi bat eman genezake. Jakina da irrifarreak eta hitz goxoez ezin dituztela arazoak desagertarazi baina, ez al du laguntzen? Baietz esango nuke.

ITURRIAREN ALBOAN INOR EZ DADILA BEHINTZAT EGARRI SENTITU.

"Jakina da irrifarreak eta hitz goxoez ezin dituztela arazoak desagertarazi baina, ez al du laguntzen? Baietz esango nuke".

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

## ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

## LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

## ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

## ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte.

## KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

## PUBLIZITATEA

Miryam Aldazabal

## MAKETATZAILEA

Maite Rementeria

## ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

## KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

## KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi

eta Julen Zabaleta.

## BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

## INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

## TIRADA

4.000 ale

## LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

## ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



luzka fundazioa  
fundación luzka



## Morkaikoren etorkizuna

Urtarrilaren 24an, iluntzeko 8etan, egunkarietan eta astekari honetan adierazi zen bezala, Morkaiko Mendizale Elkartearen urteko bilera arrunta egin zen. Urteko diruen gora-beherak eta antolatutako ekintzen berri eman ondoren eguneko gai zerrendako gairik korapilotsuena aztertu zen: Zuzendaritza Batzorde berriaren hautaketa.

Elkartearen Zuzendaritzako ardura inork ez duela hartzerik nahi ikusita eta bertaratu ziren 12 lagunen artean, bost lehengo zuzendaritzakoak zirela kontuan hartuta, egokira iruditu zitzaigun eztabaida bat hastea bertaratu zirenen ikuspuntua jasotzeko. Aurrez zuzendaritzak bere irizpidea azaldu zuen:

Lehendabizi, nahiko egoera tamalgarririk deritzogu 1.800 bazkide eta 400 federatu baino gehiago izan 1.996. urtean eta oraintsu urrezko eztaiak bete dituen mota honetako klub bat bertan behera geratzeari, berorrek daraman guztiarekin; hau da, federazioko baimenik ez bideratzea edo urteroko ekintzarik ez antolatzea (Finalista Eguna, Elgoibarko Itzulia, etab...); kontutan izan behar da lur-jotze hori, antolakuntzan jendeak lagundu nahi ez duelako dela.

Bigarrenik, gure legealdia bukatu da eta ekintzak berritu eta antolakuntzan partaidetza gehitu dadin jende berria sartzea onerako delakoa gaude.

Azalpen honen ondoren eztabaidan parte hartu zuen jende gehienak. Eskertzekoa da hori, eta ikusi genuen, badagoela lan egin nahi duen jenderik, baina Lehendakariaren irudiak horrelako errespetu bat ematen die. Gure ustez ez da hain korapilotsua lehen aipatutako ardura hori eta behin eta berriz diogu zuzendaritza berri horri beti ere laguntzeko prest gaudela.

Horrela bada, bilera bukatutzat jo zen; seguraski otsailaren 21ean aparteko bilera bat egingo da eta bazkide guztiei eskaria luzatzen diegu joan daitezen. Bileraren egiteko bakarra zuzendaritza batzordea hautatu edo bestala, Morkaiko Mendi Elkartearen etorkizunarekiko erabaki bat hartzea izango litzateke.

## Morkaiko Mendizale Elkarteko Zuzendaritza

## KEXAK

## GALDERAK

◆ Mintxetara gimnasia egitera joaten den batek galdera hau luzatu nahi dio dago-kionari:

**“Aldagelak nahiko zikinak egoten direla begitantzen zait. Nori dagokio garbiketa lana eta zenbatean behin egiten da garbiketa?”**

Udal Patronatutik zera erantzun digute: “Garbiketa lana “Limpiezas Gonzalez”i dagokio eta egunean behin egiten da garbiketa”

## TXALOAK

◆ Herri Institutuko DBHko 1. mailako ikasle talde bat etorri zaigu San Juan Bosko eguneko jaia antolatu dutenak txalotzeko, bai eta bertan parte hartu duten guztiak ere.

◆ “Udal Kirol Patronatua txalotu nahi dugu Kiroldegian egiten ari diren hobekuntza guztiengatik, bai eta Mintxeta eta Kiroldegia txukun eta garbi edukitzeagatik ere”.

◆ Elgoibartar batek Elgoibarko Udala txalotu nahi du San Frantzisko iturrian eta Plaza Txikian jarleku barriak jarri dituelako.




◆ Emakume bat etorri zaigu kexaka Leku-Ederren, umeak ibiltzen diren inguruan zuhaitzak txakur kakaz beteta egoten direla eta jabeek kontu eta errespetu gehiago izan dezaten eskatuz.

◆ Leku-Ederreko bizilagunak etxean atzealdeko parkean egoten den zikinkeria eta gazte jendeak ateratzen duen zarata dela-eta kexu dira. Ez zaie gaizki iruditzen gazteak bertan elkartzea baina bai zikinkeria botatzea (zigarro piztuak, latak, gozokiak, preserbati-boak, edariak...). Esan digutenez, konponbide baten zain daude auzokideak.

◆ Haundiri txaloa eman nahi dio zaletu batek, “domekan Oñatin jokotutako partiduan, bigarren zatixan batez ere, sekulako lana euki zabelako oñatiarrei eustia-kin. Enpatia izango zalakuan, sekulako pozakin etorri giñan Elgoibarrera bat eta hutsa irabazitxa”.

## BAI, ESAN?



Koldo  
Lizarralde  
Etnografoa

Kandelaria, San Blas, Santa Ageda, ihauteriak... Ospakizun ugari izan ditugu astean zehar eta izango ditugu asteburuan zehar. Ohitura zaharrak dira baina gaur arte bizi iraun dutenak. Hauen inguruan zerbait gehiago jakin nahian **Koldo Lizarralde** ETNOGRAFOari hiru galdera luzatu dizkiogu.

– **Nondik dator Kandelariaren ospakizuna? Nola ospatzen da?** - Kandelaria kristauek ospatzen duten jaia da. Egun honetan kandelak bedeinkatzeko tradizioa dago. Maria Amabirjinaren purifikazioaren omenezko kristau ohitura dela esan ohi da. X. mende inguruan du sorrera, hala ere, badirudi benetako jatorria IV. mendean Jerusalemenean ospatzen zen jai batean duela, “Laugarren Epiphania” izena zuena.

Kandelaria egunean kandelak bedeinkatu ostein, etxera eraman eta piztu egiten ziren ekaitza eta trumoi zetorrenean. Eguraldi txarraren aurkako antidoto elizkoia dela esan daiteke.

– **San Blas eguna oso errotua dago gure herrian. Zer da ohitura honi buruz jakin behar duguna? Zergatik bedeinkatzen dira San Blas opilak eta bestelako jatekoak?** - San Blas opilen eta beste jakien bedeinkazioa familia osoko kideak eztarriko gaitzetatik gordetzeko egin ohi da. Lehen, gatza oso jaki estimatua zen eta bedeinkatzaera eramateko ohitura zegoen. Gero, gatz hori jatekoa gazitzeko erabiltzen zenez, janaria bedeinkatu egiten zen automatikoki.

– **Oso ezberdinak al dira gaurko eta lehengo ihauteriak?** - Mende hasieran, ihauterietako asteartean, sokamuturra izaten zen eguneko ekitaldi “fuertea”. Honez gain, “bailes de salon” ere egoten ziren eta jendeak etxean topatzen zuen edozer trapu jantzita moztrotzen zen. Gaur egun, Elgoibarko ihauteriak “Ihauteri urbanoen” haritik ospatzen direla esan daiteke.

## OTSAILERAKO ESKAINTZA BEREZIAK 7 gautako egonaldiak

**Classy**

San Frantzisko, 56  
Tel-Faxa: 74 02 40  
20870 ELGOIBAR

CUBA .....	81.900	PANAMA .....	89.200
THAILANDIA .....	82.900	CANCUN .....	72.900
NEW YORK .....	82.900	REPUBLICA DOMINICANA .....	74.400
MIAMI .....	89.600	ISLA MARGARITA .....	69.600
CARTAGENA DE INDIAS .....	92.900	BRASIL .....	81.500

# 24 ordu udaltzaingoarekin

*14 udaltzain daude gaur egun Elgoibarren. Kalean gora eta kalean behera ikusten ditugu gau eta egun, astegun nahiz astebukaera. Autoei isunak ipintzen eta trafikoa erregulatzen ibiltzeaz gain, beste zeregin asko ere badu Udaltzaingoak. 24 orduz eskaintzen dute zerbitzua eta guk euren zeregina zein den jakin nahi izan dugu. Jabier Oñederra "Garro" sargentuak adierazi diguzenez, azken urteotan asko aldatu da Udaltzaingoaren figura. Ikus dezagun zergatik.*

**G**arai batean udaltzaina polizia zen batez ere. Eta polizia batek legea betearazi behar du. Gaur egun, halere, polizia izan eta legea betearazteaz gain bestelako zereginik ere badute udaltzainek, herriartarrei zerbitzua eskaintzea hain zuzen.

**Inkesta.** Epe laburrera inkesta bat jarriko du martxan Jabier Oñederra sargentuak. Udaletxean praktiketan dagoen ikasle baten laguntzaz, inkesta bat prestatu dute eta epe laburrera, Udaltzaingoan utziko da zerbitzua jaso dutenek bete dezaten. Helburua, Udaltzaingoaren akatsak zuzendu eta herritarrei ahalik eta kalitate handieneko zerbitzua eskaintzea da.

**Ordu bietako mokaua.** Gaua luzea izaten da. Gaueko 10etatik goizeko 6etara bitarteko turnoak dutenez, gaueko 2ak izaten omen da unerik zailena. Halere, ordu horretan mokaua hartzen dute eta indarberriak ekiten diote berriz ere lanari. Sabela bete eta bapo!

**Auzoetako poli-**

**zia.** Gaztelera "policia de barrio" deitutakoa aurten jarri berri da martxan Elgoibarren. Momentuz auzo guztietara egunero joateko beste udaltzain ez dago, baina nola edo hala konpon-tzen dira eta gutxienez astean behin pasatzen dute auzo bakoitza, "jendearentzat udaltzainak ikustea beti da lasaigarria". Astelehenean Sigma eta Santa Klaran izaten dira, asteartean Urasandin, asteazkenean Altzola, San Antolin, San Pedro eta Mugaruza etorbidean Melitoneraino eta ostiralean San Roken.

**Mobila.** Ez pentsa mobila ejkutibok bakarrik erabiltzen dutenik. Garai bateko walkie-talkie haien ordez gaur egungo udaltzainak telefono mobila erabiltzen hasi dira. Honela, gauez esate baterako, komisaldia itxita egoten denez, bertako telefono zenbakia desbideratu egiten dute eta norbaitek euren zerbitzua behar balu, kalean dabilzan udaltzainek deia jasoko lukete.

**Plenoa.** Hilero, azken ostiralean izan ohi da plenoa. Azken urteotan plenoetan istiluak izan direla eta, alkatearen aginduz udaltzainek Udaletxe sarreran egon behar izaten dute eta sargentua

bera goian, pleno aretoan. Ordu horretan Sigmako gurutzebidean ere nahikoa arazo izaten da trafikoarekin baina lehentasunak markatu behar eta...

**Baserritarrak.** Hileko azken larunbatean izaten da beti azoka. Elgoibartik ezezik inguruko herrietatik ere makina bat baserritar



eta tratante etortzen da eta, noski, trafiko aldetik zenbait arazo sortzen dira Plaza Txiki inguruan. Halere, sargentuaren hitzetan, “baserritxarrek ez dia konturatzen eta euren baserriko ataixan egongo balia bezala aparkatzen dabe. Ezin da konparau egunero nahitxa bigarren iladan eta gaizki aparkatzen daben kaletarrek. Eskuzabalauak izan bihar gera baserritxarrekin hilian behin”.

**Alfonbrak.** Ordenantzen artean bada bat goizero-goizero emakume batzuk betetzen ez dutena. Santa Ana kalean badirudi ordenantzen berri eman behar zaiela. Izan ere, goizeko 9etatik aurrera ezin da alfonbrarik astindu kalera baina jendearen ezagutza eza edo ohitura dela eta, egunero udaltzainek atentzioa deitu behar izaten die goizeko 10etan hautsak kentzen dituzten andreei.

**Gauak eta bikoteak.** Denetik ikusten omen da gauzez. Galdetu bestela udaltzainei! Zenbat eta zenbat aldiz, toki konkretuetatik pasatu eta beste aldera begiratu behar izaten dute, han bertan, bikoteak egoten direlako etxerik izan ez eta euren lan goxoak praktikatzten!

**Uniformea.** 1996ko abenduaren 20an bete zituen Elgoibarrek 650 urte. Eta egun horretan, baita ere, Udaltzaingoak uniforme berria estrainatu zuen. Urtero erosten dute erropa berria baina beti modelo berdina. Sargentua aspaldian zebilen aldatu nahian eta iaz arraia horizontal zuridun jertseak eta arraia bertikaldun prakak erosi zituen. Entzun behar izan zuen komentariarik arraia zirela-eta udaltzaien baten ahotik!

**Istripua.**

Anekdotak bitxi asko gertatzen zaie udaltzai-

nei egunero. Baina, horietakoren bat kontatzeko eskatu eta apenas gogoratzen zaizkien. Halere, hona hemen bitxikeria bat: “behin istripu bat egon zen. Bi autok aurrez aurre elkar jo zuten”. Udaltzain bat hurreratu eta, ‘nork jo du bestea lehenago?’ galdetu zuen.

**Tabernak.** Astebukaera guztietako auzia! Orduitegiak markatzen duena betearazi behar dute udaltzainek eta askotan izaten dira arazoak. Taberna batzuk ez omen dira oso prest azaltzen “hain goiz” ixteko negozioa eta bitartean, legea bete duten tabernen kalterako euren gaita joaten dira bezeroak. Ez hori bakarrik, taberna horien gainean bizi direnen aldetik makina bat denuntzia jasotzen dira Udaltzaingoan, “horietako batek bere jarrera aldatzen ez badu, laster santzioa izango du eta litekeena da taberna ixtea”.

**Zenbakia.** Udaltzainek ez dute izenik. Euren identifikazio txartela zenbakia da. Bakoitzak bere zenbaki propioa du eta edozein egoeratan erantzun behar dio zenbaki horri.

**Atxiloketak.** Iaz pare bat atxiloketa bakarrik egin zituen Udaltzaingoak. Horrelakoetan, pertsona atxilotu eta komisaldegira eramaten dute. Bertan eskubideak irakurri eta Elgoibarren kalabozorik ez dagoenez, Eibarko Ertzaintzaren esku uzten da atxilotua epailearengana joan aurretik.

**Armak.** Porra bat da Udaltzainek gainean eramaten duten arma bakarra. Ez dute gehiegi erabiltzen, sargentuak esan bezala, “esku luzea da batez ere. Behin edo behin toki ilunen batean sartu beharra izaten denean, toki arraroren batean eskuan porra hartu eta badirudi seguruago zoazela”.

**6,00etatik 14,00etara**

**6,00:** Lehenengo lana, autoz herriari buelta bat ematea da, “eguna ematez aldera eta gauzak aurreko egunean bezala mantentzen diren ikustera”.

**7,15:** Sigma eta Txankakuan udaltzain bana egoten da trafikoa erregulatzen. 8ak aldera Bernardo Ezenarroko zebra bidean beste bat egoten da eta hirugarrena Urasandin, eskolara doan autobusak inolako oztoporik izan ez dezan.

**9,30:** Udaltzain bat herrian geratzen da. Bigarren udaltzainak, autoa hartu eta auzoetara jotzen du.

**12,30:** Urasandiko bidegurutzean norbait egon behar izaten da Pilar ikastetxeke irteera ordua dela-eta, demaseko nahaspila sortzen baita.

**12,45-14,00:** Sigma eta Madalako bidegurutzeetan trafikoa zuzentzen.

**14,00etatik, 22,00etara**

**14,00:** Bernardo Ezenarroko zebra bidean bat eta beste bat Sigmako bidegurutzean trafikoa zuzentzen.

**15,00-17,30:** Etxe desberdinetan egiten ari diren obrak kontrolatu eta igeltsero, iturgin nahiz bestelako langileen lana legearen arabera dauken ikusteko.

**18,00-20,00:** Sigmako bidegurutzean trafikoa zuzentzen.

**20,00:** Merkatu Plaza inguruan norbait egotea komeni da auto mugimendu handia izaten delako. Musikeskola ere bertan dago eta haur eta guraso asko ibiltzen da bueltan.

**20,15-22,00:** Mintxeta ingurura joan eta gauzak nola dauden ikusi arazoak izaten baitira jendeak ate ondoran aparkatzeko ohitura duelako.

**22,00etatik, 6,00etara**

Astean zehar turnorik lasaiena izaten da nahiz eta zerbait gertatzen denean, gertatua gauza txikia izan arren, egunez baino inpresio gehigo egiten duen. Kilometro asko egiten dute oinez gaueko turnoak dutenek. Kalez kale ibiltzen dira, pasiaran, edonor ezertan hasiz gero ere, atentzioa deitzeko eta, ahal den neurrian, lapurretan edo bestelakorik ekidinez.



# Gustatzen al zaizkizu ihauteriak?



**MIREN BASTIDA**  
11 urte, ikaslea

Bai, ze jendia disfrazauta juten da eta ez dozu inor ezautzen. Ni urtero disfrazatzen naiz kuadrilan, aurtent punky-z goaz.



**VICENTE CUNCHILLOS**  
24 urte, mezularia

Bai. Asko gustatzen zait giroa eta mozorrotzea ere bai. Normalean jazteko ohitura daukat lagunekin edo biko-tearekin. Aurtent ume gaizto moduan jantziko naiz.




**ROSA M. MARTÍNEZ**  
49 urte, langabetua

Bai, asko gainera. Disfrazatzea ere gustatzen zait baina lagunak ez dira normalean animatzen, beraz... Halere, nahiz eta ez jantzi giroan beti sartzen naiz, dantzan...



**NEREA ONEDERRA**  
18 urte, ikaslea

Bai, asko. Oso ambiente politxa egoten da. Martzianoz disfrazauta urtego gera baina aurtent ilusio gitxiokin examinetan gaude eta.



**PATXI GARCÍA**  
49 urte, almagaztaria

Bai. Giro ona egoten da, jendeak inprobisatzeko gaitasun handia izaten du... Urtero ez naiz disfrazatzen, aurtent hankatik operatu berri naute eta ez dut asmorik.



**NORA UNZUETA**  
11 urte, ikaslea

Bai, festak daozelako. Neri ere gustatzen jata disfrazatzea eta erropia ezaguneri eskatzen diuet. Aurtent punkyz disfrazauko naiz eta eurak bezela ibiliko naiz.

**ANCHUSTEGUI S<sub>a</sub>**  
**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
20870 - ELGOIBAR  
Gipuzkoa

**OIERKI IGOGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

**TXURI BELTZ**

**Taberna** San Franzisko 38

**MEKANOSA**

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



## IHAUTERIAK: imajinazioaren gailurra

Asteburuan ihauteriak ospatuko ditugu Elgoibarren. Azken hamar edo hamabost urteotan larunbat gaua izaten da mozorro festak eztanda egiten duen unea. Azken aldian mozorro lehiaketa ere egiten da. Udalak antolatu eta herriko kolektiboak arduratzen dira aurkezpen lanak egiteaz. Aurten ere, sariak ez dira, ez, makalak. Animo, beraz, eta ondo pentsatu mozorroa, sariren bat irabazteko aukera izango da eta!

Imajinazioa eta sormena lanean jartzen dituen festak dira ihauteriak. Pailazoak, piratak, amona zaharrak, arabiarrak, etab., horiek betikoak dira. Baina izaten da imajinazio apur batekin mozorro benetan originala egitea lortzen duenik. Urtero agertzen dira telebistako pertsonaia ezagunen imitazioak: Rappel dela, CQC programako aurkezleen era-jaztea dela... Azken finean mozorroa gutxienezkoa da eta nor bere barruan jai-go-goa izatea da garantzitsuen.

### Sasi-koipetsu

Mozorro kolo-retsua eta musika zatatsuz beteriko egun zoroak dira ihauteriak. Baina duela gutxi arte, Elgoibarren egun bakarra ospatzen zen, asteartea, alegia. Gaur egungo ihauteriak ospatzeko modua, beraz, nahiko berria da. Gerraostean, beste modu batera antolatzen ziren ihauteriak. Ostegun lodi egunean, laguntaldeaak norbaiten etxean bildu edota mendira joan-




da, bapateko jaia antolatzen zen. Ohitura zegoen "sasi-koipetsu" egitea, hau da, sasi makila batean txorizoa edo txerrikiren bat erretzea. Izan ere, izena ere bertatik hartu du: sasia eta koipea.

Garai hura bizi izan zutenek diote, egun honetan jendea kantuan eta dantzan kalera irteten zela ihauteriak ospatzeko. Gerra aurretik, ordea, jendea mozorrotuta ateratzen zen kalera eta Udal Areto Nagusian sekulako dantzaldia izaten zen, maskara eta guzti.

Gaur egun Ihauteriak jai unibertsalak dira. Edozer da balekoa, umore piska bat baino ez da behar. Azken orduko edo hobe esan, etxean egindako mozorroa egitea erabat arrunta bihurtu da, hala ere, badira alde aurretik prestatzea nahiago dutenak. Bakoitzak berea.

Modu batera edo bestera, dena da balekoa. Ihauterietan nor bere istorioaren aktore bihurtzen da.



# iSPI- DEGIRA

ITURRI  
tabernakoa

*Juan Bautista Iteaguirre*

- Zer nahi zenuke ateratzea etxeko iturritik?
- Janarixa.
- Zein da diru iturririk emankorrena?
- Ikasketak eta lanerako gogua eukitzia.
- Bizitza iturria balitz, zein litzateke itogina?
- Jendian arteko ezin ulertua, intolerantzia...
- Ura ezezik beste zein edarirekin ere bizi ahal izango zinateke? - Euskal Herriko ardo beltzakin.
- Zer ospatuko zenuke txanpain botila batekin?
- Euskal Herrixan askatasuna, presoak kalera urretzia...
- Eguraldi eguzkitsuak atsegin al dituzu?
- Bai, udia gustatzen jata. Hotza bat ere ez.
- Barraren aurrean ala atzean? - Trago bat hartzeko neria ez dan beste edozein tabernatan.
- Txikiteoa desagertuko al da sekula?
- Ez dot uste.
- Zein ordutan oheratzen zara? - 11,30ak aldera.
- Eta esnatu? - 7,30etan.
- Sekula irakurri al dizute etorkizuna?
- Ez, bueno horoskopua irakurtzen dot batzutan baina ez gehixegi sinisten dotelako.
- Goizeko pintxoa ala bazkal osteko kafea?
- Arratsaldeko ardua pintxuakin.
- Zein herritako plazan izan nahi zenuke taberna? - Venezian, musikoz inguratuta.
- Telebistako programaren bat? - Pelikulak.
- Sekula jantziko ez zenukeen kolorea? - Morea.
- Aspaldian eskatu al dizute zerbait arrarorik?
- Americano bat.
- Eta zer da? - Kafe luzia urarekin.
- Tabernarako zein musika duzu gustukoen?
- Euskal musika, italianoak, Albano, Pavaroti, Luis Mariano... Musika lasaia, bakalaorik ez.
- Berriz jaioko bazina, zeinen azalean bizi nahi zenuke?
- Hiru Mosketeroetariko bat izatia gustauko jatan.

## ● Lehergailu mehatxua BBV banketxean

Aita Agirre plazako BBV banketxearen sukurtsalean lehergailu mehatxua izan zuten joan den asteazkenean, eguerdiko 12,30ak aldera. Ertzantzak lekua zintaz inguratu zuten. Banketxeke langileek lantokitik atera behar izan zituzten baina azkenean abisua ez zela benetakoa izan adierazi zuten Ertzantzak.

## ● IMHko museoa eta ikastaroa

Erreminta Makinaren museoa 25 makina jaso ditu hiru urteko funtzionamenduan. Elgoibarko Ciaran eta Estartako taladroak, Eibarko Cruz Ochoaren fresadoreak eta Jose Retenaga eta Orbeako tornuak daude ikusgai besteak beste. Museoaren bultzatzaileek 500 metro karratuko eraikuntza prestatzeko asmoa dute bertan XX. mendeko tailer moduko bat martxan jartzeko. Eraikuntza hau non kokatuko den zehaztu gabe dagoen arren, IMH inguruan eraikiko da ziurrenik.

Bestetik, Txandakako Injinerutza ikasketetarako sarrera frogak prestatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa martxoaren 15ean hasiko da eta 44 ordu izango ditu guztira. Izena emateko epea hilaren 17an amaituko da. Zeregin honetarako IMHra jo.

## ● Sinadura bilketa Josu Arkauzen alde

Herri Institutuko 14 urte-tik 18ra bitarteko ikasle batzuek Josu Arkauz euskal preso politikoaren estradizioa salatzeke sinaturak bildu dituzte. Dagoeneko 175 bat lagunengatik atxekimendua jaso dute. Kanpainaren helburua Frantziar Estatuaren kolaborazio politika salatzea da.

## Gaztetxea, itxita

Astearte goizean Ertzantzak Gaztetxea itxi zuten Eibarko epaitegian Alkortako jabeak jarritako denuntzia betetze aldera. IMHko eta Mekanikako 16 urte-tik gorako ikasleek klasetik irten eta manifestazioa egin zuten.

Gazte Asanbladakoek astearte ilun-tzean emandako prentsurrekoan Alkortari egotzi zioten itxtearen erantzukizuna eta hitz egiteko hartu zuten konpromezua bertan behera utzi izana salatu zuten. Era berean "gazteak lokal horretan sartu baginen Udalak ez zigulako lokalik ematen izan zen, beraz, ardura Udalarena ere bada". Alkortako tailerra botatzeko asmoa omen dago; "jarrera

honek erakusten du Alkortakoek nahia-go dutela lokala zikinkeriaz eta xaguz beteta edukitzea, gazteek bertan ekin-tzak burutzea baino".

### 'Gakoa' plataforma

Gaztetxearen aldeko kolektiboen plataformaren aurkezpena egin zuten prentsurrekoan zehar. 'Gakoa' izenarekin, Elgoibarko hainbat kolektibok eta pertsonak osatzen du berau. Plataformaren helburua Gaztetxeak dagoen lekuan jarrai dezan da eta Udalarai Alkortarekin akordio batera iristea eskatuko diote plataformako kideek. "Probisio-nalki bada ere, Udalak behin betirako

lokal publiko bat ematen ez duen bitartean, Alkortaren tailerlean jarraitu behar du Gaztetxea". Gazte Asanbladak 6 kontzertu, antzerkia, diapositibak, trikiti ikastaroa eta 3 hitzaldi antolatuta zeuzkan otsail eta martxorako.



## Santa Klarako bidegurutzeari inauguratu ostean asfaltatze lanetan hasi dira

Gillermo Garate alkateak, Jose Julian Irizar Aldundiko errepide saileko zuzendariak eta beste agintari batzuek Txankakuako bidegurutzeari eta Salbatorearen irudia inauguratu zuten joan den ostiral eguerdian. Benantzio parrokoak irudia eta errepidea bedeinkatu zituen. Errepide saileko aldu-

naren bisita aprobetxatuz, alkateak San Pedroko errepidearen egoera larriaren berri eman zion Irizarri. Konponketen zenbatekoa 57 milikoa da eta 97an egingo litzateke konponketa. Proiektua egin eta gero, Aldundiak eta Udalak gastuen banaketa eta obren e-jekuzio epea negoziatu behar-

ko dute.

### 3. aldiz asfaltatu

Ostiralean inauguratu eta astelehenean makinak asfalto berria botatzeari ekin zioten. Udaletxetik esan digutenez, Aldundiak kontratatu zuten enpresak ez zuten asfaltoa behar bezala bota. Duela hilabete batzuk asfaltatu zuten lehen aldiz baina ertzak errematatu gabe geratu zirenez, berriro etorri ziren langileak lana amaitzera. Badirudi bigarren aldiz etorri zirenean hotzagatik edo umedadeagatik, asfaltoa ez zela ganoraz itsatsi eta orain errepide osoko asfaltoa altxatu behar izan dute eta berria bota. Konponketa hauen gastuak kontratatutako enpresak ordaindu beharko ditu, eta ez Aldundiak.





## Ez dute Olaso baserriko arkuak botako nitxoak eraikitzeko

Ocio eraikuntza enpresak nitxo berriak egiteko lanei ekin die Olaso Kanposantuko kanpoaldean dagoen terrenotan. Olasoko arkuak botatzearen inguruan sortu den jakinminaren inguruan Belen Elorza zinegotziak "arkua bere lekuan" lagako dela esan digu. Oraingoz aurreproiektuaren zati bat baino ez da egingo, 200 nitxo inguru. "Arkuaren bueltan egin behar ziren nitxoak ezingo dira eraiki, horregatik agian 200 nitxo horiek doazen lekuan gehiago egin beharko dira.

### HBren kritikak

HBko kide den Jabi Agirrek azaldu duenez, "Kanposantuan obrak hasi dira dagoeneko eta oraindik Ondare Historiko-Artistikoaren erankundetik ez da txostenik iritsi inguru horri buruz". Gainera, "obra desglosatu egin da eta momentuz 26 milioiko aurrekontua du. Halere, zenbatekoa da kostu osoa? Ez al da aurrez plenotik pasa behar?". Honen aurrean Belen Elorzaren erantzuna zera izan da: "ez da aurrekontu osoa egin aurreproiektuaren zati bat baino ez delako egingo, honen aurrekontua 26.823.812 pta. direlarik. Ez dakigu 2. edo 3. faseak noiz izango diren, hori jendearen eskakizunaren arabera dagoelako".

Obren hasieran nitxoen zenbatekoaren %25a ordaindu behar da eta gainontzekoa amaieran. Lanak hiru hilabetean burutuko dira.

## HB eta IUk plenoa nahi dute Herri Kontuen Epaitegiaren txostena dela eta

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostena dela eta, pleno berezia eskatzeko asmoa azaldu zuen prentsaurrekoan HBk. IU-EBren babesa baduten arren, PP ez dator bat eta EAK ez du erantzun. Pello Mendizabalen hitzetan, "orain arte PNVren eta Gillermo Garateren erantzuna bakarrik jaso da kerella sartuko dutela esanez, salaketari erantzun gabe. Herritarrek informatuta egoteko eskubidea dute eta horregatik eskatuko dugu

plenoa". Horrez gain, HBk PNVren joko bikoitza salatatu du, "gai batzuetan txostenaren aholkuak jarraitu ditu eta beste batzuetan ez. DEBEMENen kasuan, PNVk base-rritarren gaiaren monopolioa du eta besteok ez dugu inbertsioen berri izaten". Bestalde, Mahai Nazionalako kideen atxiloketa dela eta, "Alternatiba Demokratikoa bideoa zabaltzearen, abertzale izateagatik atxilotu dituzte eta hemen zigortzen dena adierazpen askatasuna da.

## ● Errotatxok informaziorako telefonoa jarri du martxan

Errotatxok informaziorako telefono zerbitzua jarri du martxan aste honetan. Herritar guztiek HIESa eta drogo-menpekotasunen inguruko edozein gairi buruzko informazioa eskura izango dute. Jakinarazi digutenez, kontsulta puntualak egin daitezke, zalantzak argitzeko, beste telefono edo helbide batzuen berri izateko edo, beharra duenak, hitzegiteko ere dei egin dezake. Telefono zenbakia 74 24 47 da eta ordutegia astelehenetan eta ostiraletan arratsaldeko 6etatik 8etara eta asteazkenetan gaueko 9,30etatik 11etara izango da.

## ● Sahararako laguntza

Saharako herrialdearekin elkartasun kanpaina martxan dago. Herrialde hartara kontserbako atuna bidaltzeko da aipatu kanpaina. Atunak oliotan behar du egon, eskabetez ez du balio eta 250 gr. edo 300 gr.ko latak izatea komeni da, banaketa errazagoa izan dadin. Atun latak biltzeko kanpaina hilaren 10ean bukatuko da. Udalak dei egiten die elgoibartar guztiei kanpainen lagun dezaten. Latak Udaleko Ongizate Sailera eraman daitezke.

## San Juan Bosco jaia Herri Institutuan

Joan den ostiralean Ezenarroko Logse batxilagoetako eta Arregitorreko BUP eta REM eta DBHko 500 bat ikasle eta irakaslek San Juan Bosco jaia ospatu zuten. 42 taldek hartu zuten parte antolatuta ziren ekintzetan: tortila lehiaketa, marrazketa, olerkiak, xakea, mus eta tutea, arto-jokoa, mountain-bike... Krosean 400 bat lagunek jardun zuen eta goiti-beheretan 26 taldek. Orokorrean partaidetza oso altua izan zen. Froga bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera, taldeek hainbat puntu lortu zituzten, irabazleak hauexek izan zire-

larik: Ezenarro ikastetxean Zientifikoko 1A gelakoak. BBBn 2. mailakoak eta DBHn 2D gelakoak. Honez gain, arratsaldeko antzerki saioan irabazleak BUPeko 2Ckoak izan ziren. Aktorea onena Edurne Iriondo Humanistikoko 2Bkoa aukeratu zuten. Aipatu behar da, futbito partiduan irakasleek Zientifikoko 1Bkoen aurka, launa berdindu ostean, irakasleek penaltietan galdu egin zutela.

Antolatzaileek eskerrak luzatu nahi dizkiete parte hartu eta lagundu zuten guztiei, Udaltzaingoari eta Gurtutze Gorriari bereziki.



## Karkizanoko industri saileko plan partziala onartu da

Artekarieta idazkari lanpostuen oinarriak eta elkarrekin bizi diren bikoteen erregistroa ere eztabaidatu ziren plenoan.

**K**arkizanoko Industri Saileko plan partziala onartu zen joan den astean izan zen plenoan. Planaren behin-behinekoko proiektua jende aurrean aurkeztu ondoren Markos Arregik jarritako emendakina Udalbatzak ez zuen onartu. Era berean, Elbarrituen Federazioak aipatu proiektuan euren egoera kontuan hartu eta legeak kasu hauetan esaten duena betetzea eskatu zuen. Plan partziala aho batez onartu zuten alderdi guztiek.

Hurrena, Habilitazio Nazionalako artekari eta idazkari lanpostuak eskuratzeko oinarriak eztabaidatu ziren. Iaz egin zen lehiaketan lanpostua hutsik geratu zenez, aurtengoa berriz aterako dira eta 1995eko oinarri berak mantentzearen alde agertu ziren, hizkuntz eskakizuna barne. HBk azaldu zenez, "guk ez dugu onartzen Estatu mailako oposaketarik egin beharra. Udalak eskubidea izan behar du frogak, oinarriak eta prozesua bera eramateko.

Madrileko kontrolik izan gabe". Bozketan, HBk aurka botatu zuen baina gainontzeko alderdiek baiezko botua eman zuten.

### Elkarrekin bizi direnen erregistroa

Azkenik, duela hilabete batzuk esan bezala, elkarrekin bizi direnen Udal Erregistroaren behin-betiko onarpena egin zen, alderdi guztiek aho batez onartu zutelarik. Aipatu erregistroari esker, aurrerantzean bietako baten heriotzaren kasuan, esaterako, herentzia eta pentsioa aldarrikatzeko epaiketan elkarbizitzaren frogaz izango da. Gainera, erregistroa era guztietako bikoteek eman ahal izango dute izena, "sexu berekoak barne". Bikoteek Udaltxera jo eta izena ematerakoan noiztik bizi diren elkarrekin, seme-alabarik duten, diru sarreraren gaia nola eraman duten eta beste hainbat datu eman beharko dituzte. Era berean, bikotearen erlazioa amaizten denean erregistroan baja eman beharko dute.



Kondia pareko zelaian kokatzen da Karkizanoko industri saila.

### Eskari-galderak

Plenoa ohi baino motzagoa izan zen eta ordu erdian eztabaidatu ziren puntu guztiak. Halere, eskari-galdera puntuan HBk hainbat galdera egin zituen eta ia beste horrenbeste denboraz luzatu zen plenoa.

#### ■ Presoen Batzordea

Pello Mendizabal HBko kideak Presoen Batzordea eratzea onartu zenetik bilerririk egin ez dela eta, ea gaiaren inguruan zerbait egiteko asmorik ba dagoen galdetu zuen. Alkatearen hitzetan, "alderdi bakoitzak bai eta presoen senitartekoei ordezkarria izendatzen dutenean egingo da bilera. Otsail aldera".

#### ■ Ikurrina

Joan den urtarrilaren 18an Ikurrinaren legalizazioaren 20. urteurrena zela eta HBk mozioa aurkeztu zuen "Ikurrina Euskal Herriko bandera nazional izenda-tzeko, hilaren 17-19 bitartean Udaltxeko balkoian zintzilikatu eta Udalak 18an, herritar guztiek ikurrina etxeko leihotatik zintzilikatzea gonbidatzeko" eskatuz. Halere, "ez zen ez-ohiko plenorik egin eta erantzunik ere ez genuen jaso". Garateren esanetan, "PNV ez du uste egun batean ezer berezia egin behar denik. Guk egunero egiten dugu lan herriaren alde, folklorerik gabe".

#### ■ Gaztetxea

Gaztetxea lortzeko gazteek egin dituzten ekintza eta ahaleginen berri eman eta "okupazioaren osteko astebukaera guztietan egon diren ekintza ikusita gazteek gauzak antolatzeke duten gaitasuna erakutsi" dutela gaineratu zuen. Udaltxean dagoen Gazte Batzordea positiboa izan arren, HBk alkateari gazteekin bilera eta elkarrizketa izatea eskatu zion.

**RAKS**  
SEGURITATEGIA  
74 42 65

**Ordu 1ean errebelatzen dugu**

foto | azkue

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

**XABIER**  
ILEAPAINDEGIA

Eskatu  
eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19

## ROSA MARI ANSOLA:

### “Zezeneri eskutik ematen diuet jaten“

*San Migel auzoko Irunaso baserrian jaio zen duela 43 urte eta bertan bizi da Rosa Mari Ansola. Bederatzi anai-arreben artean gazteena, bera geratu zen baserrian eta gaur egun bertan bizi da, senarra, bi alaba, ama eta anaia zaharrenarekin. Arranke handiko emakumea da Rosa Mari. Ez pentsa edozein ibiliko litzatekeenik zezen eta basurdeen artean emakume hau aritzen den eran. Gu behintzat harrituta utzi gintuen.*



**– 9 anai-arreba eta zeu baserrian.**

- Bai. Neu gainera hirukixetakua naiz, gaztena eta hirukixetakua. Bat bataiau eta segitxuan hil zan. Hiru neska izan ginan hirukixak eta neu eta oin Lekeitxion bizi da ahizpa oso-oso berdinak ginala esaten zebe. Eskolan ez zebe desberdintzen zein zan bata eta zein bestia.

**– Gustura bizi zara.**

- Bai, usau ein naiz hola eta... Holaxe tokau jatan neri bizitzia eta pozik bizi

naiz, gustura.

**– Zezen mordo bat dituzue.**

- Bai, hemen baserri bueltan 40 zezen inguru eta beste batzuk Mutrikun, hangua da gizona eta. Gizonak gazte-gazte zanetik ezautzen ditxu zezenak eta berak ekarri zitxun hona.

**–Eta, beldurrik ez?**

- Ez, ohitxu eitzen zera. Nik eskutik jaten ere ematen diuet. Zezenak ez dabe ezer eitzen tentatzen ez baditxuzu. Hori bai, ezagutzen ez daben bateronbat etortzen darian baserrira, hori igartzen dabe.

**– Gero jairik jai ibiltzen dituzue.**

- Bai, zezenak sokamuturan eta gero ponixak ere badakauz. Danak izaten dia herrixetako jaixetan ibiltzeko.

**– Basurde bat ere baduzue.**

- Gizonak ekarri zaban txikixa zala baserri batek. Hil eta jateko ekarri zaban baina, larrera etara eta deitzen nionian saltaka etortzen zan neregana eta kariñua hartu nion. Gurekin geratu zan Kiki, holaxe deitxu nion eta oin dala gitxi 7 kume ein zitxun.

**– Ez al dira oso basatiak?**

- Honek txikixok zela guk hazi ditxugun ondo

hazitxa daude eta ez dabe minik eitzen.

**– Goizeko 7etan jaiki eta egun osoa lanpetuta.**

- Bai. Baserrixan ez dao kalian bezela bazkaldu eta gero eitzen dan siestia. Hemen beti dao zeozer eitzeko, nik behintzat beti topatzen dot, ganaua dala, txerrixak, oiluak, ortua...

**– Eta atsedena noiz?**

- Bueno, ahal darian. Udan eguzkixa hartzia gustatzen jata baina etzanda ere trankil egoten ez dakitx, beti nao pentsatzen hau eta bestia ein bihar dotela eta...

**– Ondo konpontzen al zara bakarrik?**

- Gizona igeltserua da eta lanetik etortzen darian eta zapatuetan beti laguntzen dia. Konpontzen gera, bai.

**– Klean biziko al zinateke?**

- Ez neuke asmatuko, itxo edo eingo nitzake seguruena. Ni gustura nao baserrixan. Hemendik ez naiz asko urtetzen, San Migelera ere jaixetan eta hola bakarrik. Ostantzian, inguruko baserrixetako emakumiak etortzen dia eta kafetxua hartu eta kontuak esaten die. Ni hola gustura.

# Arkumeak

*Atal berri bati ekingo diogu gaurtik aurrera. Kale Zulotik Baserrira gehigarria baserriarrei ezetik kaletarrei ere zuzenduta jaio zen. Oraingo honetan, baserrietako lanen berri ematea izan da gure asmoa. Garaian garaiko gaiak azalduko ditugu ahal denean eta bestetan, denbora aldetik gaurkotatzen ez izan arren, baserriarrek euren eguneroko bizitzan egin behar izaten dituzten lanak erakutsiko ditugu. Orain, arkume garaia da. Horregatik, gure lehenengo artikuluak gai horren inguruan moldatu dugu.*

**A**rdiak intseminazio artifizialez ere ernalduta daitezkeen arren, gehiengoak nahiago izaten du metodo naturala erabiltzea, hau da, aharia artaldera bota eta gauzak bere bidetik joan daitezkeen uztea. Ahariak eta ardiak bat egiten badute eta ardia izorra geratzen bada, bost hilabete pasa beharko dira arkumea jaio arte.

Normalean ardi bakoitzak arkume bakoitza izaten du baina gerta daitezke binaka ere jaiotzea. Esan digutenez, gainera, bada superstizioziko gai honen inguruan eta iaz binaka arkume asko eta asko jaio zen, dirudienek urte bisestoa zelako.

**Kiloa 400 pta.tan**

Arkumerik gehienak abendu aldera jaiotzen dira,

uda partean, beroa dela eta, esnearekin ardiek arazoak izaten dituztelako. Martxora bitartean izaten da garaia. Gabonen bueltan hasi eta hortik aurrera arkumejana ohitura izaten da Euskal Herrian. Kiloa 800 pta.tan saldu zen Gabonetan. Orain, aldiz, 400 pta.ra jatsi da. Honen arrazoia, jendearen aldetik izaten den eskaria izan ohi da. Izan ere, Gabonetan prezioari ez omen zaio horrenbeste begiratzen baina hortik aurrera gehiago kontrolatzen denez, arkumearen salneurria ere jaitsi egin behar izaten da baldin eta saltzea nahi bada.

**10-12 kilo inguruko arkumeak**

Ardiek, beste animalia gehienek bezala eta gizakiek ez bezala, euren arkumea jaio eta berehala miazkatu egiten dute garbi-garbi eginda utzi arte. Eta arkumea bera ere, berehala altxatu eta oinez hasten da. Horretan behintzat gizakiok baino gehiago dira. Hortik aurrera,

arkumeak amaren errapeetatik esnea hartu eta 25 egunen buruan, 10-12 kilo inguru hartzen dituzten prest izaten da saldu eta jateko. 15 kilotik aurrera dituzten arkumeak arkume izateari utzi eta ardi bihurtzen dela esan daiteke.

Arkumeak egiten dituzten ardiak esne asko ematen du eta hori guztia kumeak jaten dio. Baina, pisura iritsi eta umea kentzen zaionean oraindik ere esne asko ematen jarraitzen du. Baserriarrek egunero jetsi behar izaten ditu ardi guztiak. Aukera dago makinaz jeisteko baina esan digutenez ez omen da erarik onena, ardiei errapeak gogortu egiten zaizkie eta. Ardia ona bada eguneko pare bat litro esne ematen ditu baina normalean gutxiago izaten da. Halere, jasotako esnea gazta edo gatzaturako erabiltzen da. Nork ez du sasoi honetan arkumejana egin letxugarekin lagundu eta postrean gatzatu ederra jan?



La Previsora Bilbaina  
Aseguradora Riazor, S.A.  
Aseguru konpainia (Eibarko delegazioa)

## MUGICA Funeraria

— 24 orduko hileta zerbitzua —

Bidebarrieta, 20 - behea, esk. - 20600 EIBAR

Tel: 20 19 51

# IRIARTE baserria

*San Lorentzo auzoan, ermita eta el-kartea dauden toki parean hain justu, aldapan gora igota dagoen lehen baserria da Iriarte. Juan Jose Arrizabalagarekin izan gara berriketan eta berak esan digunez, “gure baserrixak igual 500 urte baino gehixo izango ditxu eta beti gutakuak bizi izan gera bertan”.*

**E**z Juan Josek ez baserriko beste inork ere ez du sekula kaleko bizimodurik ezagutu, “baserrixan jaixotakuak gera danok eta hemen bizi gera. Nik garai batian kalia ein naban lan baina gero berriz baserrira bueltatu nitzan”. Hartutako erabakia ez zen erraza izan. Ez lehen eta ez orain, baserriatik bizitzea ez da bat ere erraza. Abantailak ere izango ditu, egun osoa gainean egoten diren jefe horietarik ez izatea esate baterako. Baina desabantailak ere asko dira. Gehiagotan esan izan dugun bezala, oraingo honetan ere Juan Josek berriz errepikatu digu, “hemen ez dao ordu toperik. Goizeko 6,30etan jaiki eta gabeko 11.30ak arte ez dao geratzerik. Lelengo ganaua gobernau, jetsi, larrera eruan... beti zeozer eitxeko. Domekatan ere, lasaixo ibilitxa ere, beti dao zereginik”. Pentsa, Juan Jose eta Maria Klara senar-emaztea ezkondu eta Santander aldeira joan zirenetik ez dira inoiz gehiago oporretan joan, “ezin laike. Zeinakin laga ganaua?”.

## Kalearekin hartuemana

Seme zaharrenak, Josebak kalean egiten du lan baina ahal duenean baserrian laguntzen du. Seme-alabei baserriko bizitza gustatzen zaie, “gainera oin ez da lehen bezela. Gure gazte sasoiari baserri inguruan mobitzen ginan denbora guztian. Eskolia ere bertan zauan, lagunak auzokuak... kalera ez ginan ixabaizten. Oin, en kanbio, eskolara ere kalera jun bihar dia, lagunartia kalia eitzen dabe eta kaliaikin askoz erlazio gehixo dake”.

Aurrerapenek ere asko lagundu




## Laguntza gutxi

Egun osoa lanean eman behar, goizean goiz esnatu eta gauean berandu oheratuz. Hori da baserriarren bizimodua, lana eta lana. Eta, kaleko lanetan bezala, hemen ez dute jaiegunik, ez opor garairik ere. Bat edo batek dirua erruz ateratzen dela pentsatuko balu, oker. Hala balitz, gaitzerdi! Baina ez, lan asko eta txakur txiki gutxi ematen du baserrian bizitzeak. Gainera, Juan Josek berak esan digun bezala, “laguntzarik ez dao. Inork ez dau laguntzen. Oin ere, arkuria prezio erdira bajau da eta guk dirua galtzen dou. Gainera, gero kanpotik ekartzen ditxue produktuak merkio eta zela jendiak kalidadiari baino preziuari begiratzen dion...!”.

omen dute baina, “makinak ere garestiak daude eta diru gitxi etartzten da baserri txiki”. Halere gustura bizi dira baserrian, “odolian sartuta izango dou igual, bertan jaio ginan eta”. San Lorentzon Elgoibarko auzo guztien artean baserri gehien dituen da. “Gure arteko erlaziua ona da. Gainera, soziedadia ere badauka eta makina bat afari eitzen ditxugu”. Afariak eta San Lorentzon abuztuaren 10ean izaten diran jaietan izaten dute atsedean txiki bat hartzeko denbora, “gabian beranduo oheratu eta goizian gorputzak igertzen dau, baitxa ganaduak ere. Segiduan igertzen debe normalidadetik kanpoko gauzak pasatzen dianian”.

## IRIARTE

- Auzoa: San Lorentzo
- Bizilagunak: Juan Jose Arrizabalaga, 47 urte; Maria Klara Mendikute, 37 urte, Joseba Arrizabalaga, 20 urte; Mirari Arrizabalaga 14 urte eta Xabier Arrizabalaga, hilabete 1.
- Lur hedadura: 18 hektarea
- Ganadua: 8 behi, idia, txahalak, behorra, 75 ardi...
- Produktua: etxerako ortua



**G**ure kaleetatik atera eta hemen bertan, Elgoibarren bai eta inguruko herrietan ere, hainbat eta hainbat irteera zoragarri ditugu. Horien berri ematea da gure asmoa oraingo honetan. Aurreantzean, hilerok-hilerok, mendi buelta bati buruzko informazio zabala emango dugu orrialde honetan. Asite honetan, Elgoibar-Karakate-Irukurutzeta-Elgoibar izan da aukeratutako mendi buelta.

### Ibilbidea

■ **1** San Rokera iritsi eta bidean gora abiatuko gara.

■ **2** Alde bietara baserriak daude: Zelandi, Panparron, Kurutze, Lapramendi...

■ **3** Lapramendi baserritik 50 m. ingurura bidegurutze bat dago. Ezkerrekoa hartu eta bideari jarraituko diogu Beraseta baserriira iritsi arte.

■ **4** Berasetan dagoen iturrian freska gaitzke, San Roketik bertarainoko

bidea 30 minutu ingurutan egin eta gero. Berasetatik gora Karakaterainoko bidea hartuko dugu eta gorritik eta zuriz margotutako harri eta zuhaitzek markatutako bideari jarraitu behar diegu tontorrera iritsi arte. Erdi bidean ia erorita dagoen borda aurkituko dugu. Bordatik eskuin aldera dagoen bidea hartu eta gorantz jarraitu. Gailurrera iritsi aurretik Morkaikok jarritako iturria dago eta handik abiatuz iristen da gurutzera.

■ **5** Gailurretik Urko, Kalamua, Moru, Akondia eta beste hainbat mendi ikus daitezke. Gurutzea atzean utzi eta telebista antenen inguruan buzoia dago, 742 m.ko altura markatzen duena. Buzoian Muneta izena jartzen du, hala deitzen baitiote soraluzetarrek Karakateri. Telebista antena atzean utzi eta Irukurutzetara iritsiko gara, 895 m.ko altuera duena.

■ **6** 864 m.ko altuera duen Atxolinera ere joan gaitzke eta ibilbidean his-

toriaurreko trikuharriak aurkituko ditugu.

■ **7** Irukurutzetatik Elgoibarrera jaisteko, Trikuharrira itzuli eta eskuin aldean dagoen bidea hartuko dugu. 5 minutura bidegurutze bat dago eta oraingoan ezkerrekoa hartuko dugu, pagadi batean sartuz. Jaisterakoan pista batzuk zeharkatuko ditugu baina guk aldapa handiko bideari jarraituko diogu basobide batean sartu arte. 20 minutura bidegurutze bat dago eta beherantz doana hartu behar da.

■ **8** Bidegurutzetik 100 m.ra Sargoateko iturrira joaten da. Iturri ondotik doan pista igoaz Otsourtia baserriira iritsi eta lehen etorrirako bidea hartuko dugu.

■ **9** Otsourtia baserriko kanpoko aldean dagoen harritzko mahai baten ondotik pasatu eta Untzon baserriira iritsiko gara.

■ **10** Errepidea zeharkatu eta Kurutzeta errepideko parking ondoan dagoen pistan behera joan eta Elgoibarrera iritsiko gara.

### Kontuan izatekoak

**A.** San Roke inguru aski ezaguna da kaletarrentzat. Baseliza, bolatokia, soziedadea, zelai ederra eta jarlekuak ditu. Baserri ondoan, berriz, iturri ederra dago.

**B.** Trikuharriak daude Karakaten, 2.000 urte Kristo aurretikoak. Era berean, hamarriak dituzten baserriak ere badira bidean zehar.

**C.** Sargoateko iturria Morkaikoren sortzaile izan zen elgoibartar baten omenez eraiki zen.

**D.** San Lorentzo auzoan baseliza, margoak, elkartea, zelai eder bat, bolatokia, errekatxoa, Amabirjina eta Artazao baserriaren frontoia daude.

**Iturria:** Deba Deheko gida turistikoa.



67 urte ditu eta orain dela makina bat urte bere aitak, Etxegiña zenak, hasi zuen Elgoibarren Santa Ageda bezperan egiten den santa eskea. 10 urte zituela eraman zuen Etxegiñak lehen aldiz semea koruetan parte harrezan eta gaur egun Ramon bera da antolatzailea. Bihar, larunbata, aterako dira kalez kale koprak. Ramonek esan bezala, "aurten goizez Santa Ageda eta gauzez kokoa aterako dira".

# RAMON URIGUEN

## "Broma bezela hasi zen Santa Eskia Elgoibarren"

**- Zure aita zenak hasi zuen Santa Eskea Elgoibarren.**

- Bai, nik dakitxela bai. Egun batian kuadrilia bromatan baietz urten eta ezetz urten, azkenian eskian atera zian, aitxa zana koplari. Eta herriko dirudunena juten zian diru eskian.

**- Eta dirua zertarako izaten zen?**

- Eurentzat, afari bat eitzeko edo. Ez zan diru gehixegi batzen.

**- Gerora gauzak aldatu egin ziren, ordea.**

- Ba lehen Santa Ageda bezperan ateratzen ginan, arratsaldian. Horretarako lana laga bihar izaten genduan eta hasieran gainera galdutako orduengatik ez ziguten ezer pagatzen. Gainera, gabian eitzen genduan afarixa ere gure boltsikotik ordaintzen genduan.

**- Dirua Karitasentzat izaten da, ez?**

- Bai. Lehen Parrokuak esaten zigun zein familixak zaken biharra eta hari ematen jakon baina gero Karitansi ematen hasi ginan. Eta oin arte.

**- Lehen koplak pertsoneri zuzenduak izaten ziren.**

- Bai, aitxa zana artistia zan horretan. Akordatzen naiz zela karnizerixa guztietan geratzen zan eta hango andriari edo alabari koplak kantatzen zizkion, baitxa tabernarixeri edo kalian ere ikusten zaban edozeini. Hori bai, beti andreeri. Oin koplariak bertsuak aurretik idatzi eta gero beti berdinak kantatzen ditzugu.

**- Kepa Urain da koplaria.**

- Bai, azkenengo urtietan bai. Eta koruetan 65 lagun inguru elkartzen gera, batzailiak barne. Guk gehi-

xo nahi genduke halere.

**- Zahatoa eta ogitartekoa beti gainean, ez?**

- Bai, derrigorra da. Goizeko 9etan hasi eta eguerdiko 2,30ak arte ibiltzen gera auzo guztietan eta goizeko 11etan mokaua eitzen dou. Bokadiluak enkargau eta zahatotik ardua edanez. Hori eta kriseilua betidanik mantentzen dira.

**- Kriseilua ere bai?**

- Bai, ze lehen arratsaldeztan urtetzen ginan eta ilundu eitzen zabanez kriseilua bihar izaten gendun. Ondiok ere eruaten dou gainian.

**- Baltasarren bazkaria ere ohitura da.**

- Bai, amaitutakuan beti han bazkaltzen dou, Santi Azkuek emandako babarrunak eta odolostia eta gero geuk erositxako zankarroia.

**- Eskuzabalak al gara elgoibartarrak?**


- Ez gehixegi. Pena hori dakat nik baina... Halere, urtero Donostian bizi dian elgoibartarrak mezia eitzen debe eta han ateratako dirua bialtzen digute. Aurten 35.000 pta. Hori organizatzen urte askuan ibili da Sabino Sorondo, 81 urte dakaz eta guk aurten omenajia ein bihar diou.

**- Noiz arte Santa Eskean, Ramon?**

- Lehen Santi Kortaberria zana eta bixok ibiltzen ginan baina oin bakarrik nao. Ia suplechterik urtetzen dan! Baina behin laga ezkerro desagertuko ote dan beldur naiz. Nik luze jarraitxu nahi dot, koruetan behintzat.

### BESTEAK ESANA

"Gizon umila da, izkutuan geratzen den lan asko egiten du eta horrek du meriturik handiena. Trinko eusten dio Santa Eskearen ohiturari". KEPA URAIN



## URTARRILEAN

### ●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Aritz Laruskain Juaristi (Urtarrilak 4)
- Xabier Arrizabalaga Mendikute (Urtarrilak 17)
- Idoia Landa Mendiolaigaray (Urtarrilak 20)
- Miguel Montes Pérez (Urtarrilak 19)

### ●●●● EZKONTZAK ●●●●

- Francisco Javier Gernández Navarro eta Juana Cobos Gracia (Urtarrilak 25)

### ●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Anastasia Corchado Molguero, 86 urte, (Abenduak 31)
- Margarita Ansotegi Zuazo, 85 urte (Urtarrilak 5)
- Agustina Olaizola Suinas, 82 urte (urtarrilak 7)
- Lorenza Barruetaña elustondo, 81 urte (Urtarrilak 9)
- Esther Gonzalez Seijas, 62 urte (Urtarrilak 12)
- Josefa Antonia Aizpitarte Aizpitarte, 86 urte (Urtarrilak 12)
- Juan Juaristi Ortuoste, 83 urte (Urtarrilak 19)
- Felisa Clara Coro Arrizabalaga, 93 urte (Urtarrilak 19)
- Aurea Urrutia Cabodevilla, 86 urte (Urtarrilak 26)
- Modesto Vila Rozas, 74 urte (Urtarrilak 26)
- Elisa Ecenarro Atristain, 95 urte (Urtarrilak 27)
- Jose María Barrenetxea Elorza, 86 urte (Urtarrilak 29)

## G O G O R A T U Z

# Gonzalo Astigarraga Ansola

## “Errezabal” (Pilotaria)

(1900-1985)



- 1900. urteko urtarrilaren 10ean jaio zen Errezabal baserrian.
- Gaztetan hasi zen pilota munduan. Erremontean jokatu zuen beti. Leku ezberdin askotan eta beste horrenbeste frontoitan jokatu zuen: Logroñon, Iruñean, Cuban, Donostian eta Madrilan, besteak beste.
- Madrilako “Recoletos” frontoiaren inaugurazioan jokatu zuen Abregorekin bikote. Aurrez aurre beste bikote bat eduki beharrean hirukote baten aurka jokatu zuten.
- Bere garaikoak ziren honako erremontista hauek: Iturain, Salsamendi, Mujika, etab.
- Pilotari laga zionean Urumea frontoian inspektore egon zen.
- Ramona Mendizabal donostiarrarekin ezkondu zen eta bertara joan ziren bizi izatera. Bikoteak bi seme-alaba izan zituen: Jose Ramon eta Mari Tere.
- Zaletasunen artean aipagarria da musikarako zeukan zaletasuna. Soinua ikaragarri gustatzen zitzaion. Elgoibarrera etortzen zen bakoitzean, Plaza Txikira joaten zen Gelatxo taldea jotzen ikustera.
- 1985ean hil zen, abenduaren 18an, 85 urte zituela.



# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI  
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07



smatuko zenukete dagoeneko argazki honen motiboa. **Pedro Ondarzak** lagatako argazki hau 1958ko San Agedako koruena da. San Bartolome elizaurrean kantuan hasi aurretik urteroko ohitura zuten argazkia ateratzea.

Hara hona agertzen direnak nor diren; atzean, ezkerretik eskumara: **Ignacio Etxeberria** "Parapan", **Juan Jose Astigarra** "Porru" (†), **ezezaguna**, **Ignacio Mugerza** "Ruso", **Floren Muguruza**, **Manuel Arriaga** "Akabarro", **Fernando Azpiazu**, **Karmelo Sanz** (†), **Fernando Uriarte**, **Jesus Rementeria** eta

**Jose Bedaio** "Maltzaga".

**Bigarren ilaran:** **Jose Arriola** "Pitxirri" (†), **Ramon Uriguen** "Etxegiña", **Andres Urain** (†), **Jose Mari Igartua** "Hamaika Bat", **Tomas Agirre**, **Juanito Lizundia**, **Patxi Lizarralde** "Agarre", **Antonio Azpiri** "Talaixa", **Donato Barandiaran**, **Amado Unzilla**, **Fernando Beristain**, **Batista Oñederra** "Garro" (†), **Martin Esnaola** (†) eta **Jose Gabilondo** (†).

**Beheko ilaran:** **Rafael Areitiourtena**, **Santiago Kortaberria** (†), **Javier Zengotita**, **Rufino San Martin** "Sorte" **Mateo Uria** "Olaso", **German Uriguen** "Etxegiña" (†), **Pedro Ondarza**, **Loren Esnaola**, **Karmelo Gil** (†), **Sebastian Odriozola** eta **Ignacio Arizmendiarieta**.



BIZITZA FANTASIA HUTSA DA





“Asko disfrutatzen dut elurretako trabesietan”



Angel Pedrón

- **Adina:** 35
- **Susturik bai?** Ez, sekula ez.
- **Birtute bat:** apaltasuna eta sintzeroa izatea
- **Luxu bat:** denbora librea edukitzea
- **Urtaro bat:** udaberria eta udazkena gustatzen zaizkit

– **Eskiatzaileentzat urte ezin hobe, ez?** - Bai, trabesia ibiltzen garentzat, udaberri ezin hobe izango da. Elurra gogortu egin behar da trabesiara-ko, basea egin.

– **Mendizaletasunetik datorkizu eskirako afizioa?** - Bai, gehienbat mendian ibiltzen naiz eta udaberrian trabesian. Mendira edozein garaitan joaten naiz, elurrarekin, udan... Udan mountain-bikearekin ere aritzen naiz.

– **Zein diru hartu beharreko segurtasun neurriak?** - Aldapak iparraldekoak edo hegoaldekoak diren ikusi, elurra kargatua eta lurra ondo finkatuta dagoen, ondoan ibairik badago zuloak estalita egoten dira... Federatuta egon behar da eta ondo ekipatua: kutzilak, kranpoiak...

– **Trabesia batek zenbat iraun dezake?** - Egun bakarrekoa edo egun bat tzuetakoa izan daiteke. Normalean egun batekoak egiten ditut nik. Mendi batera igo eta eskiatzen jaitsi. Jende askok egiten du eta nik ere egin izan dut, trabesia bat beste batekin lotu. Hiru egun hartu eta etapa ezberdinak egiten joan. Badago klasiko ezagun bat otsailetik aurrera egiten dena: Alpeetan Chamonix-Cermat. Sei-zazpi eguneko da eta oraindik egin ez badut ere, gogoia badaukat.

– **Oso nekeza al da?** - Etapak ez dira oso luzeak izaten eta gehiegi nekatu gabe egiten da, esfortzua dosifikatuz.

– **Bakarrik ala taldean ibiltzen zara?** - Askotan joaten naiz bakarrik. Horregatik walkie edo telefono mobil bat eramatea komeni da. Nik badaukat mobil bat baina oraindik ez dut sekula erabili. Beste batzuetan Elgoibarko jendearekin joaten naiz, Arakis eta kuadrilarekin.

– **Kirol gogorra al da?** - Hasieran bai baina behin piska bat ohituta asko disfrutatzen da. Berotu arte eta izerdia apurto arte izaten da txarrena. Eskia, naturarekin kontaktua, paisaia, etab. konbinatzen ditu. Benetan da konpletua.

– **Prestakuntza fisiko berezia behar al da?** - Nik urtean zehar korrika egiten dut eta mendira joan. Onena mendian ibiltzea izaten da, fondoa edukitzea. Bizitza normala eginez gero, bale.

– **Alpinoa, fondoa,... egin al dituzu inoiz?** - Fondo egin nuen behin baina ez dut berriz errepikatu. Aspergaria iruditu zitzaidan. Alpinoarekin jarraitzen dut. Asteburu askotan joaten gara eskiatzera. Jende asko badago, larruak ipini eta nere kontu ibiltzen naiz.

– **Zein lekutan ibiltzen zara?** - Pirinioetan Bisaurin, Belagua, Aspe, Orhi, Aneto, Urbia bertan... Azken honek oso jaitsiera polita dauka. Mendizale bezala Pami-en, Alpeetan, Ecuadorren Cotopasin, Pirinioetan Cervinon, etab.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK (Otsailak 8)	AGENDA (Otsailak 8. larunbata)
<p><b>ARETO FUTBOLA</b></p> <p>■ <b>Alebin mutilak</b> ■ Herri Manchester 15 - Ikas Ilargi D2 Herri Boomerang 0 - Ikas Otsokoak 11 Pilar Ajax 8 - Ikas Axelkoak 2 Pilar S. Germain 6 - Pilar All Star 2</p> <p>■ <b>Alebin neskak</b> ■ Herri Women's 4 - Ikas Laino 0 Pilar Star Girls 10 - Ikas Trumoi 1 Pilar Mix 6 - Ikas Txingor 2</p>	<p><b>ARETO FUTBOLA</b></p> <p>■ <b>Alebin mutilak (Urasandin)</b> ■ 9,00 Pilar All Star - Ikas Axelkoak 9,45 Pilar Saint Germain - Ikas Otsokoak 10,30 Pilar Ajax - Ikas Ilargi 11,15 Herri Boomerang - Mendaro D 12,00 Ikas Eguzki - Herri</p>
<p><b>SASKIBALOIA</b></p> <p>■ <b>Infantil mutilak</b> ■ Ikas Urdin 9 - Pilar Boys 12 Pilar Inter 2 - Herri Milan 0 Ikas Pirri 1 - Ikas Amantis 4 Ipurterreak 24 - Ikas Txuri 7</p> <p>■ <b>Infantil neskak</b> ■ Pilar Manchester 2 - Peña Insti 34 Ikas Katxondak 6 - Gremlins 2 Ikas Beltz 5 - Ikas Gorri 12</p>	<p><b>ESKUBALOIA</b></p> <p>■ <b>Benjamin mutilak (Kirolegian)</b> ■ 9,00 Ikas Txut - Ikas Kirol 9,30 Ikas Zirt - Ikas Mazarro 10,00 Pilar Lakasitos - Mendaro A1 10,30 Mendaro A2 - Pilar Flash 11,00 Urasandi - Ikas Izar 11,30 Pilar Kas - Ikas Izurde 12,00 Pilar Usoak - Ikas Zart</p> <p>■ <b>Benjamin neskak (Kirolegian)</b> ■ 11,00 Urasandi - Ikas Izar 11,30 Pilar Kas - Ikas Izurde 12,00 Pilar Usoak - Ikas Zart</p>
	<p>Manchester</p> <p>■ <b>Alebin neskak (Ikastolan)</b> ■ 9,45 Ikas Beder - Ikas Txingor 10,30 Ikas Sei - Ikas Trumoi 11,15 Pilar Mix - Ikas Laino 12,00 Pilar Star Girls - Mendaro C</p> <p><b>SASKIBALOIA</b></p> <p>■ <b>Infantil mutilak (Ikastolan)</b> ■ 9,45 Ikas Txuri - Ikas Amantis 10,30 Ipurterreak - Herri Milan 11,15 Ikas Pirri - Pilar Boys 12,00 Ikas Urdin - Pilar Inter</p> <p>■ <b>Infantil neskak (Pilarrean)</b> ■ 10,30 Ikas Gorri - Gremlins 11,15 Ikas Beltz - Peña Insti 12,00 Ikas Katxondak - Pilar Girls</p>

## Gimnasio berria Kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak gimnasio berria egokitu du tabernaren jatetxea zegoen tokian. 90 m<sup>2</sup>ko espazioa berreskuratu da, gimnasio bihurtuta. Espazio berri honekin lehen solairuko gimnasioak zeukan masifikazio arazoari irtenbidea emango zaio. Gimnasio hartan karateko klaseak, aerobika, jubilatuen gimnasia, mantenu gimnasia eta Haritz Dantzari taldekoen entsaioak egiten ziren. Aerobikaren kasuan, talde bat baino gehiago eratu behar izan dira, eta klaseetan masifikazioa zegoen. Gimnasio berria-

rekin aerobikaren ordutegia zabaldu egingo da eta itxaron zerrendetan zegoen jendeak aerobik klaseak jasotzeko aukera izango du otsailaren 10etik aurrera. Honez gain, haurrentzako aerobik taldeak ere martxan jarriko dira. Egun hauetan hasi berri den salsa ikastaroa gim-

nasio berrian egiten ari da eta aurrera begira antolatuko diren aretoko dantza ikastaroak ere bertan emango dira.

Gimnasio berria egokitzeko 500.000 pta. gastatu ditu Patronatuak. Batetik, zolua egurrez estali da eta bestetik, ispiluak jarri dituzte.



*Ikastaro gehiagaroko aukera ematen du gimnasio berriak.*

## KIROL ALBI STEAK

### ● Ez da aerobik zerbitzurik kontratatu

Udal Kirol Patronatuak aerobik zerbitzua kontratatu zuela adierazi zuen joan den astean. Zuzendariak esandakoa zuzendu nahi du. Izan ere, 3 enpresa aurkeztu baziren ere, batek ere ez du euskara frogua gainditu. Beraz, zerbitzua kontratatu gabe geratu da. Patronatuko batzorde erretoreak gaia aztertuko du aerobik zerbitzuarekin zer egin erabakitzeko.

### ● Federatu karnetak

Mendi federatu karnetak Morkaikoren egoitzan jasotzeko moduan daudela jakinarazi nahi du mendizale elkarteak. Ordutegia: ostirala arratsaldeko 7,30etatik 8,30etara bitartean eta larunbata goizeko 11,30etatik 12,30ak arte.

### ● Eskolarteko atletismoa

Ikastolako alebin neskek Ordiziko eskolarteko atletismo probetan parte hartu zuten joan den igandean, hilak 2. Pisuan Maialen Mora lehena geratu zen. Postu bera eskuratu zuten Ana Etxanizek luzeran eta Ainara de Pedrok 2.000 metroan. Eire Vila bigarren postuan sailkatu zen 60 metro hesietan bai eta Gorane Salaberria ere 60 metroan. Guruzne Urkidi 150 metro hesietan hirugarren iritsi zen eta laugarren izan zen Judith Zabala alturan. 4x60 metro erreleboetako taldea bigarren geratu zen eta Ikastolako taldea, guztira eskuratutako puntuei esker, txapelkun geratu zen taldekako sailkapenean, bigarren taldeari 5 puntuko alde atera ziolarik.

### ● Kiroldegiko kafetegia

Kiroldegiko kafetegiaren zerbitzuaren kontratazioaren oinarriak kaleratu ditu Patronatuak. Kafetegiaren zerbitzua hartzeko prest dagoenak gutxienez 45.000 pta. hileko eskaini beharko dio Patronatuari lehen urtean. Kontsezioa urtebeterako izango da. Proposamenak hilaren 20a baino lehen aurkez daitezke Kiroldegian eguerdiko ordu bata arte (74 44 15).

## EMAITZAK

### Futbola

Aloña Mendi 0 - **Haundi** 1  
Antzuola 6 - **Pedrusko** 0  
Antoniano 1 - Elgoibar 1 (**Neskak**)  
Elgoibar 3 - Antiguoko 1 (**Oho. jub.**)  
Elgoibar 7 - Antzuola 1 (**2. jubenilak**)  
Antiguoko 6 - Elgoibar 0 (**Oho. inf.**)  
Elgoibar 2 - S. Tomas Lizeoa 2 (**Kad.**)  
Elgoibar 1 - Anaitasuna 2 (**1. erreg.**)

### Saskibaloia

La Salle Donostia 76 - Elgoibar 65

### Eskubaloia

Pneumax 29 - Zarautz 19 (**Kad. mut.**)  
Zarautz 9 - Pagoaga Elg. 14 (**Jub. nesk.**)  
Tecnomeca 16 - Aloña Mendi 15 (**Jub. mut.**)  
Hyundai 25 - Hondarribi 26 (**Seniorrak**)

### Futbitoa

Udaberri 6 - Kunta Kinte 4  
Bokordo 4 - Aurtin Bai 7  
Karkis 3 - S. Pitxote 1

### Areto futbola

Elgoibar 6 - Inter 3 (**1. maila**)  
Elgoibar 1 - Araeta 3 (**Autonomikoa**)

### Xakea

Eibar A 1,5 - Elgoibar B 2,5 (2. maila)

### Pilota Deba arrokotxapelketa

Koxkortuak: Morcillo/Izagirre 22 - Perea/Arrillaga (Lagunak) 21  
Gazteak: Izagirre/Errasu 22 - Leon/Balzola (Lagunak) 19  
Nagusiak: Mendizabal/Bastida 8 - Ansola/Alzibar (Lagunak) 22

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 8  
9,00 Eibartarrak - Bergara (2. jub.)  
10,45 Urki A - Zumaiako (2. jubenilak)  
12,30 Gazteak - Elgoibar (2. jubenilak)  
16,30 Haundi - Urola

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 8  
16,00 Unceta - Hernani (**Kad. neskak**)

### Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 8  
19,00 Elgoibar - Oiartzun

### Xakea, Juan Mugerza kalean

Larunbata, 8  
16,00 Elgoibar A - Idiazabal A (1. maila)  
Elgoibar C - Idiazabal B (3. maila)

# SANTA AGEDA KANTARI

Sabino Sorondo omenduko dute Santa Agedako koruek

Santa Ageda bezperan Elgoibarko Izarrako korua eta Ikastolako haurrak atera ziren kantari

**B**ihar, hilak 8, goizeko 9etan 25 bat elgoibartar Baltasar elkartearen parean bilduko dira urtero berritzen den ohiturari segida emateko: kantuan arituz Santa Ageda omentzea. Goizeko 9etan Plaza Handian elkartu, eta betiko lez, erretratua aterako dute eliz-ata-

rian. Segidan lehen kopla parrokoari kantatu ostean, kalejiran hasiko dira, eguerdiko 2,30ak aldera Errosarioko Amabirjinari Salbea abestuz emango diotelarik amaiera. Aurten Sabino Sorondo, Donostian elgoibartarren aldeko mezak antolatu izan dituen 81 urteko gizonari omenaldi beroa

eskainiko diote. Aurten 35.000 pta. batu dira Donostian Elgoibarko Santa Agedako koruentzat. Iaz denera, 174.000 pta. batu ziren Santa Eskean eta urtero bezala, aurten biltzen dutena ere, Caritas-entzat izango da.



Elgoibarko Izarra Santa Eskean

Elgoibarko Izarrarren Santa Agedako koruak ere bezperan irten ziren baserri-zatetik gaueko 10ak arte zortzi-hamar laguneko bitalde ibili ziren, guztira 54 baserri koplatu zituztelarik, San Lorentzo, San Migel eta urruzuno auzoetan.

Koplariak ere puntakoak izan ziren: Azpillaga, Narbaiza eta Areitio kanpotarrak eta Meabe elgoibartarra. Antolatzaileek esan digutenez, "baserriarrek eskaintak harrera izaten da politena. Eurek nahi duten bitartean guk segitzeko asmoa dugu urtero urtero".



Ikastolako ikasleak auzoz auzo


San Bartolome Ikastolako Lehen Hezkuntzako 250 bat ikasle, lehen eta seigarren mailakoak, Santa Ageda bezpera egunean kantari atera ziren. Aurten kalez kale ibili beharrean, herriko auzoak koplatzen jardun zuten. Arratsaldeko 2,30etan atera ziren lau bat

talde, bakoitza auzo bate-ra: Artetxera batzuk, San Rokera beste batzuk, Urсандira beste talde bat eta laugarren bat Santa Klarara. Amaieran Errosarioko Amabirjinaren irudiaren aurrean denak elkartu eta Salbea abestu zioten.

## San Blas: eztarriko gaitzen zaindaria

San Blas Armenian bizi zen mediku bat zen. Haitzulo batean bizi izan zen. 315. urtean martirioa sufriarazi zioten eta burua moztuta hil zuten. Ospe handia hartu zuen behin hezur bat eztarrian geratu zitzaizolako hiltzerian zegoen ume bat sendatu zuelako. Hortik dator eztarriko gaitzak sendatzeko duen fama. Europa

osoan San Blas eguna ospatu izan da. Otsailaren 3an, jendea mezatara joaten zen San Blas opilak eta bestelako jakiak bedekatzeko. Erroskila formako opilak lotzeko soka bat erabiltzen zen. Bedeinkazioaren ostean soka hau eztarrian jartzen zen, itxuraz, jakien ezaugarri onuratsuak bereganatzen baitzituen kordelak.



# KAZETARITZA

## HITZA LANTRESNA BIHURTZEN DENEAN



### KAZETARITZA

#### ► BATXILERGO MODALITATEA

■ Giza eta gizarte zientzien batxilergoa:

- Gizarte zientziak
- Matematika aplikatua II

#### ► UNIBERTSITATEAK ETA IAZ ESKATZEN ZEN NOTA Kazetaritza

■ Antonio Nebrija (Madril) ■ Madriliko Europarra ■ Ramon Llull (Bartzelona) ■ San Pablo CEU ■ Nafarroako Pribatua ■ Salamankako Eliz Unibertsitatea ■ Bartzelonako Autonomoa (7) ■ Done Jakue Konpostelakoa (7,22) ■ EHU (6,35) ■ La laguna (5) ■ Madriliko Konplutensea (6,46) ■ Malaga (7,23) ■ Pompeu Fabra (Bartzelona) ■ Sevilla (7,38) ■ Valentziako Politeknikoa (6,27)

#### Publizitatea eta harreman publikoak

■ Antonio Nebrija ■ Madriliko Europarra ■ Ramon Llull ■ Nafarroako Pribatua ■ Salamancako Eliz Unibertsitatea ■ Bartzelonako Autonomoa (7) ■ EHU (6,48) ■ Madriliko Konplutensea (6,67) ■ Malaga (6,78) ■ Sevilla (7,24) ■ Valentziako Politeknikoa (5,92) ■ Vigo (6,34)

#### Ikusentzuteko komunikazioa

■ Madriliko Europarra ■ Ramon Llull ■ Nafarroako Pribatua ■ Salamancako Eliz Unibertsitatea ■ Bartzelonako Autonomoa (7) ■ EHU (6,85) ■ Malaga (7) ■ Pompeu Fabra (7,22) ■ Sevilla (7,22) ■ Valentzia (7,22) ■ Madriliko Konplutensea ■ Salamanca

#### ► IRTEERAK

Kazetari adarrean erredaktore, esatari, prentsa kritikoa, irrati, telebista korrespondenteak...

Publizitateari dagokionean, berriz, publizista, promozio kanpainetako teknikaria, harreman publikoetan...

Ikusentzuteko adarrean zine zuzendari, gidolari edo montadore bai telebistan bai irratan...

Idazle, zinema gizon edo argazkilaria bezala ere aritu daiteke, besteak beste.

AMAIA GOROSTIZA, Kazetaritza ikaslea

*Elgoibartar gazte honek 19 urte ditu eta kazetaritzako 2. maila ikasten ari da Leioan. Amaia Gorostiza kazetaritzako plan berria hasi dutenen lehen promozioa da eta berak azaldu dizkigu ikasketak horiek izan duen aldaketa.*

**–Gaur egun lau urteko karrera da kazetaritza.**

- Bai. Ni hasi nitzanian martxan jarri zan plan berria eta lehen 5 urteko karrera zan arren, oin lau urtera bajatu dabe.

**– Nabaritzen al da lan gehiago duzuela?**

- Nik uste dot baietz. Lan morduak bialtzen dizkigute eitzeko eta asgnaturak ere askoz gehixo dia lehen baino. Goizez eta arratsaldez egon bihar gera Leioan, egun guztia dakazu okupata eta ez da denborarik geratzen beste ezertarako.

**– Kazetaritza, publizitatea eta ikusentzute. Hiru adar daude.**

- Bai, lelelengo mailan aukeratu bihar dozu zein adar eitzia nahi dozun. Gero, lelelengo bi urtietan danok ematen ditxugu asgnatura berdinak eta hirugarren mailan hasten zera espezialidiadin.

**– Zuk zein aukeratu duzu?**

- Kazetaritza eman naban izena baina aldatzekotan nabil eta ikusentzute hartu bihar dot.

**– Zergatik hori?**

- Aukera gehixo ditxu.

Ikusentzuteko espezialidadia ein eta gero, aukeria dakazu kazetari moduan lan eitzeko baina baitxa tekniko modura ere, erreallizadore modura, editore...

**– Praktikak aipatu dituzu. Zein eratakoak?**

- Irratirako gidoiak ein eta gero fakultadeko irrati-xan berba eitzxen dou, kamara batekin atera, irudixak hartu, musikia sartu, editaje guztia ein, kamara aurrian berba ein, erreportajiak idatzi, elkarrizketak ein, publizidadian anuntziuak ikusi eta aztertu...

**– Halere, historia, zuzenbidea eta antzekoak ere ikasten dira.**

- Bai, kazetaritzakin lotutako asgnaturez gain badaude kulturalki aberasteko beste batzuk ere. Gainera, noizian behin test kulturalkak eitzxen ditxugu eta suposatzen da oso on-

do informauta egon bihar gerala.

**– Egunkariak irakurri, informatiboak entzun...**


- Bai, baina batzuetan badirudi informauta egotia baino danetik jakin bihar dogula eta gainera asko. Behin, test batian galdetu ziguten azken hilabetian zenbatian igo zan inflaziua!

**– Euskaraz ematen al duzue dena?**

- Derrigorrezkoak bai baina badaude asgnatura batzuk aukeran gaztelerez bakarrik ematen ditxuztenak, argazkilaritza esate baterako.

**– Urte baztutara non ikusi nahi zenuke zure burua?**

- Gehixen irrati-xan lan eitzia gustauko jatan, kirolletan, baina oso zaila da. Etorkizuna ez dao bat ere garbi kazetarixontzat.



INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea. 756264  
 Odol Emailak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442  
 PESA (Eibar) 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366  
 Udal Kirol Patronatua  
 744415  
 Kultura Zerbitzua . 742158  
 Mendaroko Udala. 756100  
 Ongizate zerbitzua 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udalzaingoa . . . . 741394

BESTELAKOAK

Caritas . . . . . 740142  
 Elgoibarko Izarra . 741626  
 Kiroldegia . . . . . 74 4415  
 Kontsumo Bulegoa 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . . 74 41 32  
 Institutua . . . . . 74 02 67  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea . . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . 74 40 73  
 El Correo Español 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21

7  
ostirala

**19,00 ELGOIBARKO  
 IZARRAREN V.  
 URTEURRENA**  
 Kultur Etxean  
 Antolzailea:  
 Elgoibarko Izarra

**22,30 ANTZERKIA**  
 Antzezlan: "30 millones  
 de gilipollas"  
 Antzetzaldea: Sobradun  
 Sarrera: 500 pta.

8  
larunbata

**9,00 SANTA AGEDA-  
 KO KORUAK**  
 Irteera Plaza Handian

**16,30 KARAOKEA ETA  
 MOZORRO DESFILEA**  
 Plaza Handian  
 Antolatzaila: Atxutxia-  
 maika Begirale Taldea

**19,30 MAUXITXA-  
 REKIN KALEJIRA**

**19,30-22,15 ZINEA**  
 "Espía como puedes"

**22,30 DANTZALDIA  
 LUHARTZ  
 TALDEAREKIN**  
 Plaza Handian

**24,00 MOZORRO  
 LEHIAKETA**  
 Plaza Handian  
 Antolatzaila: Gurutze  
 Gorriko Astialdi Taldea

9  
igandea

**6,30-19,30-22,15 ZINEA**  
 "Espía como puedes"

10  
astelehena

**22,15 ZINEA**  
 "Espía como puedes"

11  
asteartea

**16,00 MOZORROEN  
 TOPAKETA**  
 Plaza Handian

**16,30 PAILAZO  
 IKUSKIZUNA**  
 "Tutik ere Klowns"  
 Plaza Handian  
 (Euria egingo balu,  
 Kiroldegian)

**18,00 MAUXITXA ETA  
 HANKALUZEAK**

**18,00 DANTZALDIA  
 GELATXOREKIN**  
 Zaharren egoitzan

**19,30 SUZKO ZEZENA**  
 Plaza Handian

**ONGARRI**  
zine kluba



**Beautiful thing**  
 Langile auzo batean eta eskolar-  
 teko giroan bizi diren bi mutilen ar-  
 teko maitasun harremana kontatzen  
 du. Bikoteak euren sexualitatea  
 onartzen du baina gizarteak ez ditu  
 ulertzen. Cannes eta Donostiako zi-  
 nemaldietan harrera ezin hobea izan  
 zuen filmeak. Komedia alaia eta op-  
 timista da, gazteen amodio istorioa  
 eta aukera sexual baten askatasuna  
 azaltzen duena.

Zuzendaria: **H. McDonald (Ingala-  
 terra, 1996)**. Antzezleak: **G. Barry,  
 L. Henry, S. Noal, T. Jhonson.**



**Mandiola S.L. Egurrak**  
 Domingo Arrizabalaga



**SALEROSKETA  
 BASOEN MOZKETA**

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 67 68 64



# 13 osteguna

19,00 HITZALDIA

Gaia: Sexualitatea  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra

22,15 ZINE KLUBA

“Beautiful thing”

# 14 ostirala

19,30 KORRIKAREN  
AURKEZPENA ETA  
BIDEO EMANALDIA

Kultur Etxean  
Antolatzailea: AEK

22,15 ZINEA

“Mis dobles, mi mujer y  
to”



## ● Sexuari buruzko bigarren hitzaldia

Elgoibarko Izarrak antolatu-  
ta, sexualitateari buruz-  
ko bigarren saioa izango  
da datorren ostegunean,  
hilak 13, arratsaldeko  
7etan Kultur Etxean.  
Amaia Vazquez adituak  
sexualitateari buruzko  
hainbat gogoeta eta sexu  
harremani buruz hitz  
gingo du: gozamina, de-  
sioa, irudimena eta fanta-  
siak.

## ● “30 millones de gilipollas”

Horrelako izenburu adie-  
razgarria duen lana ikuste-  
ko aukera izango da gaur,  
hilak 7, Herriko Antzokian  
gaueko 22,30etatik aurre-  
ra. Abuztuko egun batean,  
Espainiako futbol selek-  
zioak Brasilekoaren aurka-  
ko partidua jokatu behar  
duen egunean, futbola iku-  
si baino beste edozer egi-  
tea nahiago dutenen 13  
pertonaien istorioa da.  
Sarreraren zenbatekoa 500  
pta.koa da.

## ● Kirol ikastaro eta talde berriak

Patronatuak hainbat ikasta-  
ro emango ditu hil honen  
10etik aurrera. Martxan  
jarriko diren ikastaroak  
honako hauek dira: salsa,  
masaia, aerobik nagusient-  
zat, aerobika haurrentzat,  
mantenu gimnasia, igerike-  
ta haurrentzat (3 eta 4 urte-  
koentzat eta 5 eta 8 urte  
bitartekoentzat), igeriketa  
nagusientzat eta gimnasia  
55 urtetik gorakoentzat.  
Ikastaro bakoitzak egutegi  
eta ordutegi ezberdina due-  
nez, informazio gehiago  
eskuratzeko Kiroldegira  
zuzendu edo 74 44 15 zen-  
bakira deitu.

## ● Sagardotegira AEKrekin

Korrikaren 10. edizioa-  
ri aurrea hartuz, otsailaren  
22tik martxoaren 9ra bi-  
tartearen Korrika Kulturala  
gingo da. Hilaren 22an,  
Astigarragan sagardotegi  
batean afaria antolatu da.  
Arratsaldez euskal pro-  
duktuen azoka, hankaluze-  
ak, trikitia eta beste zen-  
bait ekitaldi egongo dira  
eta gaueko 11etatik goi-  
zaldeko 3etara bitartean  
Gozategi taldearekin erro-  
meria. Elgoibartik bertara  
joateko autobusa arratsal-  
deko 5etan aterako da.  
3.500 pta.n jarriko dira  
salgai txartelak; berauek  
eskuratzeko AEKra jo edo  
74 13 32 zenbakira deitu  
hilaren 13a baino lehen.  
Itzulera ordua tokian ber-  
tan zehaztuko da.



## ● Korrikaren 10. edizioa

Datorren ostiralean, hi-  
lak 14, Korrikaren 10. edi-  
zioaren aurkezpena egingo  
du AEK euskaltegiak Kul-  
tur Etxean iluntzeko  
7,30etan. Korrika Oñatiko  
Arantzazun hasiko da  
martxoaren 14an eta 23an  
amaituko da Bilbon. Guz-  
tira 2.000 kilometrotik go-  
ra egingo dira, beti ere  
euskararen erabilera bul-  
tuzatuz. Korrika Elgoibartik  
noiz pasatuko den, bertan  
parte hartzeko zein lagun-  
tzeko moduak etab.ri bu-  
ruzko xehetasunak eman-  
go dira hilaren 14ko saio-  
an. Herritar guztiak aur-  
kezpena gonbidatu nahi  
ditu AEKk. Aurkezpenare-  
kin batera 10. edizioaren  
bideoaren emanaldia ere  
izango da.

## T X A N - D A K

### FARMAZIAK

Egunez	Gaeuz
7 Etxeberria	Etxeberria
8 Ormazabal*	
Zabaleta	
9 Ormazabal*	
Zabaleta	
10 Ormazabal	Escala
11 Bidasolo	Bidasolo
12 Yudego	Yudego
13 Ormazabal	Ormazabal
14 Bidasolo	Anduaga

\* Ordubiak arte  
**OKINDEGIA**  
9 igandea EIZAGIRRE



1996ko otsailaren 6an, 84 urte zituela hil zen **AURELIO MUJIK**  
**LARRAÑAGA**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Panasonic KR-P1180 inpresore matritziala, Windows 95ekin konpatibler salgai. (Mikel) ☎ 74 19 21
- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ 79 78 26. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreinatu berria salgai. ☎ 74 23 22
- ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30
- ◆ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. ☎ 19 50 89 Emilia
- ◆ PEUGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. ☎ 74 06 33 (Xabier)
- ◆ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. ☎ 74 15 45 (eguerdian eta gauean)
- ◆ KITARRA ELEKTRIKOA eta ANPLIA erosiko nituzke. ☎ 74 37 23 (Eguerdian eta gauean)
- ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. ☎ 74 36 98
- ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. ☎ 75 51 90
- ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (Gauzez)

### ◆ EROSI ◆

- ◆ Trikitia jotzeko bigarren eskuko SOINU TXIKI BAT erosiko nuke. ☎ 74 06 55 (8etatik aurrera)

## Lana

### ◆ ESKAERA ◆

- ◆ Pertsona nagusiak zaindiko nituzke. ☎ 74 30 30
- ◆ Ileapaintzailea naiz eta etxeko etxe moztzen dut ilea. Mari Karmen. ☎ 74 21 55
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ 74 36 38
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ 989 09 31 86
- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ 74 11 40 (Iru- ne)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ 74 39 39 (Puri)
- ◆ Administrari lanak egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. ☎ 74 40 57 (Celsa)

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. ☎ 74 32 94 (18,00etatik aurrera deitu)
- ◆ Euskaldun emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. ☎ 20 14 80 (Lanorduetan deitu. Miren)
- ◆ Neska bat behar da astebukaeratan Orbea tabernan lan egiteko. ☎ 74 31 17
- ◆ Neska edo emakume euskalduna behar da haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 74 35 86 (eguerdian edo gauean) edo ☎ 86 12 47 (Lourdes)
- ◆ Martxan dagoen fotokopisteria eta paperdenda bat traspasatzen da Ermuan ezin dugulako atenditu. ☎ 17 07 07 / 74 21 43
- ◆ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ 70 12 33

## Etxebizitzak

- ◆ Etxebizitza salgai Erretxindin. Sukaldea, komuna, egongela, lau logela, ganbara eta gas berogailu zentrala. ☎ 74 44 66
- ◆ Pisia daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Etxe bat saltzen da Arregitorre 14an, 9. pisua. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Oso eguzkitua. ☎ 74 01 34
- ◆ Pisia salgai San Antolinen egoera onean. 3 gela, egongela, sukaldea eta bainua. ☎ 12 72 22
- ◆ Alokatzeko pisu bila gabiltza. Moblatuta eta 3 logelarekin. Joseba Astorkiza. ☎ 74 41 32
- ◆ Pisu amoblatua alokatzen da. ☎ 74 04 75
- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. Erabili gabe dago eta hiru logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. ☎ 75 51 77

## Agurrak


- ◆ Urtarrilaren 31n 5 urte bete zituen **Nagore Larrañagari** zorionak bere guraso eta anaia Jonen partez.



- ◆ Otsailaren 10ean urteak beteko dituen **Oscar Martinezi** zorionak familia guztiaren partez.



- ◆ Zorionak **Aitor Arrietari** gaur, otsailak 7, 12 urte betetzen dituelako. 6. mailako nesken partez.



- ◆ **Petra**, Zorionak zure ahizpa eta familiakoena partez.



## Partikularrak

- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi

## Garajeak

- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, pista beltzean. ☎ 74 33 52
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10
- ◆ Garajea daukat alokatzeko pista beltzean, labaderoa erabiltzeko eskubidearekin. ☎ 74 01 77
- ◆ Garaje bat daukat alokatzeko San Roken, Karakate elkartearen azpian. ☎ 74 18 37


## Bestelakoak

- ◆ Husky eta Pastor aleman arteko kruzea duen txakur bat emango nuke. Oso polita da eta 3 urte ditu. ☎ 74 33 38
- ◆ Otsailaren 2an, igandea, Txankakuako autobus geltokian manikura maletin txiki bat galdutuen. Aurkitzen duenak dei dezala ☎ 74 00 18 telefono zenbakira. Saritu egingo da.
- ◆ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelo guztiak. ☎ 47 00 01 (arratsaldeko 5etatik 7etara).

**Karrikizano**  
San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

*Arrieta*  
San Bartolome, 18  
Tel. 74 08 49

**POL-POL**  
**T A B E R N A**  
San Bartolome, 19 - Tel. 74 08 74 - ELGOIBAR



**Gustura egotea nahi baduzu,  
hemen daukazu aukera**



Otsailak 14  
**San Valentín eguna**  
Egin zazu akaztezina!



**BAZAR**  
DESDE 100



**CASANUECES**



**IOSU**  
BITXIDENDA



**GARATE**

**BUENOS LIBERTO**



**Levi's**



**Papa Jeans**  
LONDON